



LH-2. MAILA
5. UNITATE DIDAKTIKOA
"Borondatea. Berdintasunez
aukeratu"



LH2-5UD.BORONDATEA-AUKERATU: IRIZPIDE ETA JARRAIBIDEAK



Neska-mutilek hautaketa pertsonalak egiteko gaitasuna esperimentatzea eta indartzea, bizi-proiektu pertsonala eta inorengana ezina ahalbidetzen duten ereduak eta ikaskuntzak aukeratu ahal izateko, egungo bizimodua eta bihar etziko ibilbidea aukeratu, planifikatu edo aldatu ahal izateko, bakoitzak, neska zein mutil, nahi duen bezala.

KONTZEPTU NAGUSIAK	BEHAKETA - AZTERKETA	ONDORIOAK - IKASKETAK
<p>1. Zaletasun pertsonalen garapena. Bakoitzaren gustuko zaletasunak norberarenak izan behar dira, norberaren izaera eta ahalmenak garatzen dituztenak. Eta ez generoak sexu bakoitzari ezarritakoak ("neskei panpinak eta animaliak, eta mutilei kirola eta autoak"). Zaletasun bat sexu batekoa bada, ez da aukera pertsonala.</p>	<p>1. Buru eta Sorginen zaletasunak. Ondo jaso dituzte ipuinean pertsonaiek adierazten dituzten gustukoak? Ala gure gizartean sexuarekin lotzen diren gustukoak jaso dituzte? Eta beraien zaletasunak idatzi dituztenean? Era guztietakoak idatzi dituzte ala genero estereotipoak islatu dituzte? Zergatik? Nola zaletu dira?</p>	<p>→ Guztion izaera eta zaletasunak baliotsuak dira. Norbera izatea nahikoa da. Sexuari erreparatu gabe, norbera garena izan behar dugu. Ez gara "artalde bat". Ez dugu zergatik beste inoren "klon bat" izan behar.</p> <p>→ Nork bere izaera eta gaitasunak garatu. Anitzak gara. Bakoitza, bakoitza da. Ez dugu sexuari lotutako eredu bat jarraitu beharrik.</p>
<p>2. Helburuak, etorkizuna irudikatu eta eraiki. Ez da "normala" neska gehienek bizitzarako helburu batzuk izatea eta mutil gehienek beste batzuk. Ez da "naturala", neskek bizitzaren arlo batzuetarako helburuak izatea eta mutilek beste arlo batzuetarako. Helburu pertsonalak, bizitzaren arlo guztietarako eta era guztietako helburuak dira.</p>	<p>2. Helburuen aukeraketa. Zein helburu aukeratu dituzte ikasleek eskainitako en artean? Zein helburu gehitu dituzte beraien kabuz? Neskek zein mutilek antzekoak? Desberdintasunak daude? Zeintzuk? Bizitzaren zein arlotan? Zergatik? Nolako etorkizunak irudikatu dituzte? Neskek zein mutilek antzekoak? Zertan bai eta zertan ez?</p>	<p>→ Bakoitzak bere etorkizuna irudikatu. Norberak daki inor baino hobeto nola eta norekin bizi nahi duen, nolako bizimodua izan eta nolakoa ez.</p> <p>→ Bizitzaren arlo guztietarako etorkizuna. Etxea eta familiarentzako. Lan eta enplegu mundurako. Gizarte, aisialdi eta lagun girorako.</p>
<p>3. Bideak egiten du helburua. Ematen ditugun urratsak garamatzate etorkizunera. Ez du berdin plan batzuk edo beste batzuk egin eta garatu. Zaletasunak eta helburuak bezala, planak pertsonalak izan daitezke (norberaren gaitasunak garatuz eta indartuz), ala generoak izan daitezke (sexuaren araberako gaitasunak garatuz eta landuz).</p>	<p>3. Helburuak lortzeko bidea. Plan edo urrats egokiak aukeratu dituzte helburuak lortzeko? Neskek zein mutilek antzeko planak ala desberdinak? Zein helburuetan? Zerekin lotuta (teknikarekin, pertsonekin, norberaren garapenarekin...)? Antzeko helburua eta planak aukeratu dituzte bukaeran? Antzeko etorkizuna eta bidea?</p>	<p>→ Edozein etorkizun. Edozein helburu, generoko mugei kasurik egin gabe. Beldurrik gabe. Konfiantza osoz.</p> <p>→ Plan anitzak, urrats pertsonal ugari, eman, probatu, saiatu, gozatu, garatu, ikasi, lotu, aldatu, partekatu, bideratu, baztertu, moldatu, jarraitu... Zergatik ez?</p>

→ Norberaren izaera eta ahalmenak → Norberaren zaletasunak, helburuak eta planak → Norberaren bizimodua eta etorkizuna.